AURRERAPEN AGIRIA

BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO ARTISAUTZA ETA ARTISAUTZA ERAKUNDEEN ERREGISTROA ARAUTZEKO FORU DEKRETUAREN PROIEKTUAREN AURRERAPENAREN AURRETIAZKO KONTSULTA PUBLIKOAREN IZAPIDEA.

Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Foru Sailaren ustez, beharrezkoa da Bizkaiko artisautza jardueraren funtzionamendua eguneratzea, errealitatera gerturatuz, Bizkaiko Artisautza Erakundeen Erregistroko araudia indarrean egon den bitarte luze honetan metatutako esperientzia kontuan izanik.

*a.- Araudi berriarekin konpondu nahi den arazoa.*

Araudi berri honekin, aldi batetik, araudia indarrean dagoen legedira egokitu nahi da, hain zuzen ere urriaren 1eko 39/2015 Legera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena, administrazio prozeduraren erreferentzia orokorrei zein jardun ildo zehatzei dagokienez.

Bestalde, erregistroaren funtzionamendu eta antolaketa eraginkorragoa izan dadin, bi atalera murriztu nahi da, aurreko erregulazioan zeuden hiru atalekin jarraitu beharrean. Ataletako bat pertsonentzako izango da, pertsona fisikoak zein juridikoak izan, eta beste atala, berriz, elkarteentzat. Horretarako, artisautza jarduera bat egitera bideratutako edozein elkarte artisautzako enpresa gisa hartu da, nahiz eta lan egituran pertsona bakarra egon.

Bidenabar, indarrean dagoen legedira egokitze aldera, beharrezkotzat jo da, eta hala lortu nahi da, kosmetika produktuak ekoizten dituzten

DOCUMENTO DE AVANCE

TRÁMITE DE CONSULTA PÚBLICA PREVIA DEL AVANCE DEL PROYECTO DE DECRETO FORAL SOBRE LA REGULACIÓN DE LA ARTESANÍA Y DEL REGISTRO DE ENTIDADES ARTESANAS DEL TERRITORIO HISTÓRICO DE BIZKAIA

El Departamento de Desarrollo Económico y Territorial, considera necesario, teniendo en cuenta la experiencia acumulada durante este largo período de tiempo de vigencia de la regulación en materia del Registro de Entidades Artesanas de Bizkaia, la actualización y puesta al día de su funcionamiento, acercándolo a la realidad de la actividad artesana en Bizkaia.

*a.- Problema que se pretende solucionar con la nueva regulación*

Con esta nueva regulación se pretende, por una parte, adaptar esta normativa a la legislación vigente, en concreto a la Ley 39/2015, 1 de octubre, de Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, tanto en sus referencias genéricas al procedimiento administrativo, como en las líneas de actuación específicas.

Por otra parte, de cara a dotar de mayor eficacia al funcionamiento y organización del Registro, se pretende reducir las secciones que lo forman a dos, en lugar de las tres de la regulación anterior: una para personas, ya sean físicas o jurídicas; y otra para asociaciones. Para ello se ha considerado empresa artesana cualquier organización dirigida a realizar una actividad artesanal, aunque en su estructura laboral cuente con una sola persona.

También con el fin de adaptarlo a la legislación vigente se ha estimado necesario y se pretende que, para el caso de empresas dedicadas a la

enpresek Botiken eta Osasun Produktuen Espainiako Agentziaren baimena izatea, urriaren 17ko 1597/1997 Errege Dekretuan arautatakoa (kosmetika produktuen araudia jaso zuena) eta otsailaren 25eko 209/2005 Errege Dekretuak aldatutakoa, inskripzioa egin ahal izateko.

Azkenik, inskripzioak baliogabetzeko araubidea berrikusi nahi da, izena eman duten enpresa edo elkarteek uko egiteagatik gertatzen ez denean. Horretarako, erregistroa erabat boluntarioa dela hartu behar da oinarritzat; erregistroaren eskakizunak Jarduera Ekonomikoen Zergaren zerrendari eta dagokion Gizarte Segurantzako araubideari daude lotuta; izan ere, eskakizun horiek gabe ezin da artisautza jarduera garatu, eta horixe da, hain justu ere, erregistroaren izatezko arrazoia.

*b.- Araudi testua onartzeko beharrizana eta aukera*

Bizkaiko Artisautza Erakundeen Erregistroak garrantzia duela eta ekarpenak egiten dituela frogatu du, Bizkaian artisautzaren sektorea antolatzeko tresna gisa; horrenbestez, aurrera jarraitzea komeni da, dagokion eguneraketarekin.

*c.-Arauaren xedea*

Esan dugun moduan, xedapenaren helburua artisautza produktuak egiteko garatutako jarduera definitzea eta mugatzea da, artisautza jarduera hori sustatu eta pizgarriak emateko ekintzen ondorioetarako soilik, Bizkaiko Foru Aldundiak kultura ondasun gisa ulertzen baitu.

Bidenabar, Bizkaiko Lurralde Historikoko Artisautza Erakundeen Erregistroaren funtzionamendu araudia erregulatzea ere bada Foru Dekretu honen xedea; erregistro horretan izena emateak artisautza enpresa edo erakunde gisa aitortzea dakar.

*d.- Planteatutako arazoaren konponbide alternatiboak egotea, arautzaileak eta ez*

fabricación de productos cosméticos, deban contar con la autorización de la Agencia Española de Medicamentos y Productos Sanitarios, regulada en el Real Decreto 1597/1997, de 17 de octubre, que recoge la regulación de los productos cosméticos, modificado por el Real Decreto 209/2005, de 25 de febrero, para poder proceder a su inscripción.

Por último, se pretende revisar el régimen de cancelación de las inscripciones, que no sean debidas a la propia renuncia de las empresas o asociaciones inscritas. Para ello, debe partirse de la base de que se trata de un Registro de carácter absolutamente voluntario, cuyas exigencias están vinculadas al censo del Impuesto de Actividades Económicas y del régimen correspondiente de la Seguridad Social, ya que sin estos requisitos no puede ejercerse la actividad artesanal, que es la razón de ser del Registro.

*b.- Necesidad y oportunidad de aprobar el texto normativo*

El Registro de Entidades Artesanas de Bizkaia ha demostrado su trascendencia y contribución como instrumento para la organización del sector artesanal en Bizkaia, por lo que es aconsejable su continuidad, con la pertinente actualización.

*c.- Objeto de la norma*

Como ya se ha dicho el objeto de la disposición es definir y delimitar la actividad desarrollada para elaborar productos artesanos, a los solos efectos de las acciones de fomento y de incentivo de esta actividad artesana, concebida como un bien cultural, por parte de la Diputación Foral de Bizkaia.

Asimismo, también es objeto del presente Decreto Foral la regulación del régimen de funcionamiento del Registro de Entidades Artesanas del Territorio Histórico de Bizkaia, cuya inscripción implica el reconocimiento de la condición de entidad o empresa artesana.

*d.- Existencia de soluciones alternativas regulatorias y no regulatorias al problema*

*arautzaileak*

Bizkaiko Foru Aldundiko artisautza sustatzeko politikan kokatutako jarduera modura, ez dago sektorea arautu, antolatu, sustatu eta bultzatzeko balioko duen alternatibarik, aintzat hartuta Foru Administrazioak sektore ekonomiko horretan zuzenean parte hartzeko eskumenik ez dagoela.

*e.- Proposatutako araudiaren eraginpeko helburuko publikoak eta nori bideratu behar zaion.*

Foru Dekretuaren proiektu hau arautzea erakunde hauei bideratuta dago:

-Bizkaiko artisautza erakundeak edo enpresak

-Bizkaiko artisautza elkarteak

*planteado.*

Como una actividad encuadrada en la política de fomento de la artesanía de la Diputación Foral de Bizkaia, no existe una alternativa que sirva para regular, organizar, incitar e impulsar este sector, teniendo en cuenta que no existe competencia para la participación directa del Administración Foral en este sector económico.

*e.- Públicos objetivos afectados por la propuesta normativa y a quienes se debe dirigir.*

La regulación del presente Proyecto de Decreto Foral está dirigida a las siguientes entidades:

- Empresas o entidades artesanas de Bizkaia

- Asociaciones artesanas de Bizkaia